



PLT-C-2019-0009

## **PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA**

**ALDUNDIAREN ERREPIDE SAREKO TUNELETARAKO, SEGURTASUN  
ARDURADUNAREN LANAK EGITEKO ZERBITZU KONTRATURAKO,  
APLIKAGARRIA DENEAN EUSKO JAURLARITZAREN 2010EKO AZAROAREN  
2KO 277/2010 DEKRETUA, LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ZENBAIT  
JARDUERA, ZENTRO EDO ESTABLEZIMENDUREN AUTOBABES-  
BETEHARRAK ARAUTZEN DITUENA.**

**13-SR-79/2019**



PLT-C-2019-0009

## AURKIBIDEA

1.- BALDINTZA AGIRI HONEN XEDEA.....	3
2.- KONTRATUAREN OBJEKTUA .....	3
3.- LANEN DESKRIKAPENA.....	4
4.- ADJUDIKAZIODUNAREN BALIABIDEAK.....	10
5.- LAN ARRISKUEN PREBENTZIO ALORREAN INDARREAN DAGOEN LEGERIA BETETZEA	10
6.- LANAK GAUZATZEKO EPEA .....	11
7.- KONTRATUAREN PREZIOA.....	11
8.- KONTRATUAREN ALDAKETAK MUGAK.....	11
9.- LANEN BALORAZIOA ETA ORDAINKETA.....	12
I. ERANSKINA: KONTRATUAREN XEDE DIREN TUNELAK.....	13
II. ERANSKINA: LANGILE KOPURUA .....	14
III. ERANSKINA: LANARI LOTUTAKO ARRISKUAK, ERREPIDEA IREKITA DAGOENEAN ....	15
IV. ERANSKINA: NEURKETAK, UNITATEKO PREZIOAK ETA AURREKONTUA.....	17
V. ERANSKINA: JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA.....	19



PLT-C-2019-0009

## 1.- BALDINTZA AGIRI HONEN XEDEA

Agiri honek xede hau du: Eusko Jaurlaritzaren 277/2010 Dekretua aplikagarri den Aldundiaren errepide sareko tuneletarako segurtasun arduradunaren lanetarako zerbitzu kontratuaren xede izango diren gaiak zehaztea eta zerrendatzea; horretarako oinarritzat hartuko diren baldintza eta irizpide teknikoak definitzea; eta agirien edukia eta prestaketa zehaztea.

## 2.- KONTRATUAREN OBJEKTUA

Europako Batasunari dagokio Europaz gaindiko errepide sarean segurtasun, zerbitzu eta erosotasun maila handi, bateratu eta etengabea bermatzeko erantzukizuna. 500,00 metrotik gorako tunel luzeak, sare horien zati handi eta erabakigarria osatzen duten egiturak dira; eta, beren berezitasunagatik, eta segurtasunari dagokionez, hain hauskorrak direnez, gutxieneko betebeharrak tekniko batzuk behar dituztenak. Segurtasun betebeharrak horiek, "Europaz gaindiko errepide sareko tuneletako gutxieneko segurtasun betebeharrak" buruzko 2004/54/EE Zuzentarauan jasota daude.

Zuzentzarua aplikagarria da Europaz gaindiko errepide sarean dauden 500 metrotik gorako tunel guztietan, eta tuneletako segurtasunari dagokionez, erantzukizun desberdineko zenbait figura definitzen ditu, azpimarratzekoa delarik **segurtasuneko arduraduna**. Figura horren ezaugarriak Zuzentzarua 6. artikuluan definituak daude. Hauexek dira, zehazki:

«1.- Tunelaren kudeatzaileak segurtasun arduradun bat izendatuko du tunel bakoitzerako. Aldez aurretik agintari administratiboak onartua izan beharko duen arduradun horrek prebentzioarekin eta babesarekin lotutako neurri guztiak koordinatuko ditu, erabiltzaileen eta langileen segurtasuna bermatzearren. Segurtasun arduradun hori tuneleko langileriako kidea edota larrialdi zerbitzuetako langilea izan daiteke, tunelaren segurtasunarekin lotutako gai guztietan independentea izango da, eta gai hauei dagokienez, ez du agindu bat bera ere jasoko bere ugazabengandik. Segurtasun arduradun berak, eskualde bereko tunel bat baino gehiagotan burutu ahal izango ditu bere zeregin eta egitekoak».

Europaz gaindiko kudeaketa zuzeneko sareko errepideen kasuan, Errepide Zuzendaritza Nagusiari dagokio tunelaren kudeatzailea izendatzea, eta berak proposatuko dio agintaritzari administratiboari, Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluari, segurtasun arduradunaren izendapena. Beraz, organo horrek, kontratuaren adjudikazioaren arabera, segurtasun arduradun bat izendatuko du kudeaketa zuzeneko tunel guztietarako.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoak 2010ean onartu zuen «azaroaren 2ko 277/2010 Dekretua, larrialdiei aurre egiteko zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen», non autobabes-neurriak arautzen diren hainbat jarduera, zentro, establezimendu, espazio, instalazio edo bulegotan nahitaez aplikatzeko, betiere arrisku egoerak sor daitezkeenean pertsona, ondasun eta ondare kolektiborako, edo larriki kaltetuak gerta daitezkeenean mota horretako egoeren ondorioz. Zehazki, aipatutako dekretuaren I. eranskinean jasotzen den betebeharrak hori duten instalazioen katalogoan sartzen dira, alde batetik, 2004/54/CE Europako Direktibaren xede diren tunelak, eta, bestetik, 200 metro baino gehiagoko luzera duten errepideetako tunelak, hiri barrukoak badira, eta 500 metrokoak hiriartekoak badira. Beraz, betebeharrak hori dute Europako errepide



PLT-C-2019-0009

sarearen barruan ez dauden bi tunel hauek: Zorroagako tunela GI-41 errepidean, eta Olandixoko tunela GI-2620 errepidean. Ondorioz, bi tunel horiek Europako legeriak ezartzen dituen antzeko baldintza eta betebeharrak bete behar dituzte.

Errepide Zuzendaritza Nagusiak ez dauka Segurtasun Arduradunaren zereginak bere gain har ditzakeen pertsonal espezializaturik. Gainera, arduradun horrek, gai horretarako bereziki prestatutako pertsona izan behar du, tunelen ustiapen eta segurtasun gaietan adituak diren pertsonengandik etengabe aholkuak jasoko dituen norbait.

Hori horrela, zerbitzu hau kanpora atera behar dugula pentsatu dugu, ezaugarri teknikoen agiri honek arautuko duen zerbitzu kontratu bat eginda, hain zuzen.

### **3.- LANEN DESKRIBAPENA**

#### **3.1. LANEN DEFINIZIO OROKORRA**

Segurtasun Arduradunak bete beharreko zereginak, "Europaz gaindiko errepide sareko tuneletako gutxieneko segurtasun betebeharre" buruzko 2004/54/EE Direktibaren 6. artikuluan definitutakoak berak izango dira. Zehazki, honako hauek:

- a) larrialdi zerbitzuekiko koordinazioa bermatzea eta jarduera planen prestakuntzan parte hartzea;
- b) larrialdi eragiketak planifikatzen, martxan jartzen eta ebaluatzen laguntzea;
- c) Segurtasun planen eta autobabeserako eskuliburuen definizioan parte hartzea, eta baita ere egituraren, ekipamenduaren eta funtzionamenduaren zehaztapenean, bai tunel berriei dagokienez, bai egun dauden tunelen aldaketei dagokienez;
- d) tuneleko langileen eta larrialdi zerbitzuetako pertsonalaren prestakuntza egiaztatzea, eta aldika-aldika egingo diren simulakroak antolatzen laguntzea;
- e) tunelen egitura, hornidura eta funtzionamendua baimentzeko garaian, bidezko aholkuak ematea;
- f) tunelen egitura eta ekipamenduaren mantenimendua eta konponketak egiaztatzea;
- g) edozein istripu edo gorabehera larri ebaluatzen laguntzea, halakotzat harturik 5. artikuluan 3. eta 4. apartatuetan adierazitakoak."

#### **3.2. ZEREGINEN DEFINIZIO ZEHATZA**

Adjudikaziodunak, are zehatzago esanda, honako eginkizunak izango ditu:

- Tunelen aldez aurreko Segurtasun Txostena egingo du, eta horretan, kontratuaren helburu izango diren tunel guztien hasierako segurtasun egoera jasoko da, edozein fasean daudelarik ere. Aldez aurreko Segurtasun



PLT-C-2019-0009

Txostena aurkeztu beharko da 4 hilabeteko epean gehienez ere, kontratua sinatu ondoren.

- Tunelen proiektuak egiten lagunduko du, tunelen segurtasunarekin zerikusia duten gaietan bereziki.
- Baimenaren zain dagoen tunel bakoitzerako Segurtasun Irizpena emango du, eta hori, tunelaren kudeatzaileak Agintaritzza Administratiboari bidali beharreko Segurtasun Dokumentazioari erantsiko dio, tunela zirkulaziorako irekitzeko baimena eman dezan.
- Egituran, horniduran edo funtzionamenduan funtsezko edozein aldaketa egiteak ekar ditzakeen ondorioak aztertuko ditu, baldin eta aldaketa horrek, segurtasun dokumentazioan jasotako elementuren bat nabarmen alda badezake. Gero, gai horren inguruko irizpena emango du, tunelaren kudeatzaileari bidaltzeko.
- Tunelen kudeatzaileak eratu eta ezarri beharreko larrialdi planetan parte aktiboa hartu eta zeregin horiek ikuskatu egingo ditu, zona bakoitzeko Larrialdietako Artapeneko/Babes Zibileko arduradunen eta tunela ustiatzeko ardura dutenen artean lotura izan dadin lagunduz.
- Tuneleko langileen eta larrialdiko barne zerbitzuetako pertsonalaren (landako eragileen) prestakuntza egiaztatuko du, eta simulakroak antolatzen lagundu.
- Direktibaren eskakizunak betetzen dituen simulakroen plan bat badagoela egiaztatuko du, programatutako simulakroen antolakuntzan aktiboki parte hartuz; eta gero, simulakro horiek larrialdi zerbitzuekin batera ebaluatuko ditu.
- Simulakroen balorazio txostenak egingo ditu, eta hauetan, ateratako ondorioak jasoko ditu, antzemandako gabeziak zuzentzeko neurri zuzentzaile egokiak adieraziz.
- Tunelen egitura eta ekipamenduaren mantenimendua eta konponketak egiaztatuko ditu, segurtasunari dagokionez.
- Tunelen aldizkako ikuskapenak egingo ditu, gutxienez urtean behin, segurtasun neurriak baliozkoak eta nahikoak direla bermatzeko, eta segurtasun elementu guztiak kontserbazio nahiz funtzionamendu baldintza egokietan daudela ziurtatzeko, bai obra zibilari eta instalazioei dagokienez, bai eta ustiapenaren bitarteko material eta giza baliabideei dagokienez ere.
- Ustiapenari lotutako alderdiak ebaluatu eta hobekuntzak proposatuko ditu, besteak beste dokumentazioari, prozedurei, eta autobabeserako eskuliburuari dagokienez.
- Mantenimendu eta artapen taldeetako arduradunek betetako jarduera-agiriak ikuskatuko ditu.



PLT-C-2019-0009

- Zuzenketa-mantenimenduko jarduerak, planean aurreikusitako denboretan betetzen direla, eta erantzuna emateko denbora horiek, ustiapenaren segurtasun premiekiko egokiak direla egiaztatuko du.
- Egindako jarduketei eta izandako gorabehera adierazgarrii buruzko urteko memoria egingo du, haien arrazoiak aztertuz eta izan litezkeen soluzioak azalduz; halaber, ustiategian izan daitezkeen hobekuntzak proposatuko ditu. Memoria hori hurrengo urteko lehen hiruhilekoa amaitu aurretik egin behar da.
- Kontratu honen xede diren tunelen esparruan gertatzen diren istripu edo gorabehera larrien berariazko txostena egingo du; eta horretan, istripua ekarri duten edota istripuan eragin duten faktoreak ebaluatzeaz gain, horrelakorik berriro ez gertatzeko har daitezkeen segurtasun neurri osagarriak aztertuko dira. Txostenari eta tuneletan gertatzen diren gorabehera eta ezbeharren ebaluazioari dagokienez, jarduketa hauek gauzatuko dira, hala behar denean:
  - Istripua edo gorabehera gertatu den tokian agertzea kontratu-taldeko ingeniari bat gutxienez, 24 orduko epean gehienez ere, beharrezkotzat jotzen diren landa-datuak hartzeko. Epe hori kontatzen hasiko da ERREPIDE kontrol zentrotik segurtasun arduradunari deia egiten zaion unetik zentro horretan bertan gertaera izan den lekura bertaratu izanaren erantzuna jasotzen den arte.
  - Diagnostiko aurreko txosten bana bidaliko zaie tunelaren kudeatzaileari eta agintaritza administratiboari 72 orduko gehienezko epean, izandako istripu edo gorabehera garrantzitsuaren ondoren. Txosten hori egingo da landa-datuak eta Mugikortasunaren Kudeaketarako Miramongo Zentroan erregistratutako datuak aztertu ondoren. Gainera, kontuan hartu beharko dira prozedurei, autobabeserako eskuliburuei, eta abarrei buruzko ustiapen alderdiak. Aldez aurreko txosten horretan jasoko da izandako istripu edo gorabeherari buruzko deskribapen labur eta orokor bat, eta baita ere gertakari horren arrazoiari buruzko lehen ondorioak. Epe hori kontatzen hasiko da ERREPIDE kontrol zentrotik segurtasun arduradunari deia egiten zaion unetik kontratuaren zuzendaritzari, posta elektronikoz bidez, aurretiazko txostena bidaltzen zaion arte.
  - Tunelaren kudeatzaileari lagundu egingo zaio bai gorabeheren txostenak eta ikerkuntza txostenak egiten, eta bai hartu harreko neurrien proposamena eratzen ere.
  - Segurtasun neurri guztiak betetzen ez badira, zirkulazioa etetea edo murriztea proposatuko da. Tunela ixtea proposatzeko, aldez aurretik arriskuari eusteko har daitezkeen neurriak aztertu beharko dira, eta era berean, tunela berriro irekitzeko proposatzen diren gutxieneko segurtasun neurriak ezarri. Gomendio horiek egiterakoan, halaber, tunela ixteak bide sare osoan izango duen eragina baloratu beharko da.



PLT-C-2019-0009

Lizitatzailerik, beren proposamenean, atal honetan azaldutako lanak gauzatzeko jarraitu beharko litzatekeen metodologia aurkeztu beharko dute.

Lan horiek guztiak etengabe gauzatzeko dira kontratuak irauten duen bitartean, eta hileroko txosten bat egingo da, bere kargura dauden zeregin horien barruan tunel bakoitza zein egoeratan dagoen adieraziz.

### **3.3. PARTE HARTUKO DUTEN PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOEN AHALMENEN, EGINKIZUNEN ETA ERANTZUKIZUNEN DEFINIZIOA.**

#### **3.3.1. Inplikaturako pertsona fisiko edo juridikoen definizioa.**

##### **3.3.1.1. Administrazioa**

Ondorio guztietarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepideetako Zuzendaritza Nagusia izango da administrazioa, eta honek indarrean dagoen legediaren arabera baliatuko ditu bere eskumenak.

##### **3.3.1.2. Kontratu honen arduraduna**

Errepideetako Zuzendaritza Nagusiak kontratu honen arduradun bat izendatuko du, Administrazioaren ordezkari funtzioak egingo dituena inplikaturako gainerako pertsona fisiko edo juridikoen aurrean. Lan talde bat ere izan dezake berarekin, eta lankide horiek guztiak ere Zuzendaritza Nagusiak izendatuko ditu.

##### **3.3.1.3. Aholkulariaren ordezkaria**

Industri ingeniaria edo telekomunikazio ingeniaria, baldintza agiri honetan zehazten denaren arabera kontratu honen xede diren lanen arduraduna.

##### **3.3.1.4. Segurtasun arduraduna**

Europaz gairik errepide sareko tuneletako gutxieneko segurtasun betebeharreari buruzko 2004/54/EE Direktiban halakotzat definitua dagoen segurtasun arduraduna industria ingeniaria izango da, edo telekomunikazioetako. SEGURTASUN ARLOKO TALDE AHOLKU-EMAILE bat izango du berarekin.

SEGURTASUN ARLOKO TALDE AHOLKU-EMAILEA esatean, segurtasun arduradunaren laguntzaile taldea ulertu behar da, eta hori, tunelen segurtasun eta ustiapenari buruzko gai desberdinetan titulazio egokia eta esperientzia egiaztatua duten pertsoez osatutako taldea izango da. Talde horretako kideek, beren titulu profesionalek edo berriazko ezagupenek emandako eskumenen arabera beteko dute dagokien zeregina.



PLT-C-2019-0009

### 3.3.2. Funtzioak eta eskumenak

#### 3.3.2.1. Administrazioaren eskumenak eta eginkizunak

Indarrean dagoen legerian xedatutakoak izango dira Administrazioaren funtzioak eta eskumenak, eta legean aurreikusitako moduan garatuko dira. Bereziki, zerbitzuak onartzeko gaitasuna dagokio eta ondorioz kontratuan parte hartzen duen pertsonala proiektuko lanetan onartzeko edo kentzeko gaitasuna dauka, baldin eta horretarako arrazoiak badaude. Hori horrela, kasuan-kasuan aplikatu beharreko araudien arabera, egin beharreko lanaren kalitatean eta zehaztasunean eragin dezaketen egintzak edo ez-egiteak gertatzen badira, kontratuaren exekuzioan ordena egokia berreskuratzeko neurri zehatz eta eraginkorrak hartzea exiji dezake Administrazioak.

#### 3.3.2.2. Kontratu honen arduradunaren ahalmenak eta funtzioak

Kontratu honen zuzendariak eginkizun administratibo, ekonomiko eta teknikoak beteko ditu kontsultorearen ordezkariari dagokionez. Ildo honetan, ordezkari eta segurtasun arduradunek kontuan hartu beharko dituzte hark emandako jarraibideak. Dena den, segurtasun arduradunari dagokionez, ez da ahaztu behar kontratuaren arduraduna bera izango dela erantzulea, bere eginkizunen esparruan, eta segurtasun arduradunaren irizpideen kontra eginez, idatziz ezar ditzakeen erabakien kasuan. Horiek, segurtasun arduradunak onartu egin beharko ditu, baina idatziz erasota laga ahal izango du kasuan kasuko gaian gertatzen den irizpide baturik eza, etorkizunean sor daitezkeen erantzukizunak argi gera daitezen.

Kontratuaren arduraduna den ingeniariak koordinazio lanak egingo ditu eta adjudikaziodunaren jardueraren irizpide eta ildo orokorrak ezarriko ditu, lan horiek ahalik eta hobekien erantzun diezaieten Errepideetako Zuzendaritzaren interes eta helburuei. Zehazki, honako zeregin hauetarako eskumena izango du kontratuaren zuzendaritzak:

- Ezaugarri teknikoan agiria bera eta kontratuan edota kontratuari aplikatu behar zaizkion lege xedapenetan ezarritako gainontzeko baldintzak interpretatzea, eta aldaketak proposatu eta horiei buruz informatzea. Era berean, aldaketa horiek aurrekontuan edota lanak egiteko epe edo luzapenetan izan lezaketen eraginari buruz ere informatuko du.
- Aholkulariak jarraitu behar dituen irizpideak zehaztea, eta honek egindako lanen garapena ikuskatzea.
- Aholkulariari lanak ordaintzeko ziurtagiriak egitea, kontratuaren Baldintza Administratibo Berezien Agirian gai honi buruz ezarritakoarekin bat.
- Aholkulariari dagozkion kredentzialak ematea eta haren jarduna koordinatzea, hala Errepide Zuzendaritza Nagusian nola bestelako organismo ofizial batzuetan.





PLT-C-2019-0009

### 3.3.2.3. Aholkulariaren ordezkariaren eskumenak eta eginkizunak.

Aholkulariaren eskuordeak, kontratuaren arduradun gorenari dagozkion eginkizunak hartuko ditu bere gain; horrela, bera arduratuko da lanak kontrolatzea eta ikuskatzea, egindako lanak Administrazioaren interesak ahal den modurik onenean betetzeko.

### 3.3.2.4. Segurtasun arduradunaren eskumen eta eginkizunak

Segurtasun arduradunak kontratu honek ekarritako giza baliabide eta bitarteko materialak izango ditu bere esku, dagozkion eginkizunetarako; giza baliabide horiekin talde erabat integratua osatuko du, SEGURTASUN ARLOKO TALDE AHOLKU-EMAILEA hain zuzen. Talde horretako kideen parte hartzea, beren eginkizunak eta eskumenak taldeko organigramatik ondorioztatzen denaren arabera gauzatuko dira; eta organigrama horrek tunelaren kudeatzailearen onespena beharko du.

## 3.3.3. Erantzukizunak

### 3.3.3.1. Segurtasun arduraduna

Segurtasun arduraduna izango da bere eginkizunetan hartzen dituen erabakien eta gerta litezkeen ez-egiteen erantzulea. Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak izendatuko du berariaz, Errepide Zuzendaritza Nagusiak egindako proposamenari jarraituz.

SEGURTASUN ARLOKO TALDE AHOLKU-EMAILEko gainontzeko kideak beren izendapenei dagozkien eskuduntzak betetzean egiten dutenaren erantzule izango dira. Hala, aholkulariaren eskuordea eta aholkularia bera izango dira beren langileen jardueren erantzuleak, kontratuarekin edo obrarekin zerikusia duen orotan.

### 3.3.3.2. Aseguruak

Adjudikazioduna derrigortuta dago, bere kontura eta kontratuak iraungo duen aldi osorako, aseguru poliza bat erostera. Horren ezaugarri eta irismena kontratu honetako baldintza administratiboan agirian zehazten dira.

## **3.4. KONTRATUAREN XEDE DIREN TUNELAK**

Kontratuaren xede diren tunelek bete egin behar dute 277/2010 Dekretuak, azaroaren 2koak, larrialdiei aurre egiteko zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituenak, xedatzen duena; zehazki, preskripzio teknikoan agiri honen I. eranskinean jasotakoak dira.



PLT-C-2019-0009

#### **4.- ADJUDIKAZIODUNAREN BALIABIDEAK**

Kontratu honetan zehazten dira egin beharreko lanak unerik egokienean egiteko beharrezkoak diren langileak eta bitarteko materialak.

Horretarako, aholkulariak kontratu honen eskura jartzen dituen bitartekoen zerrenda bat aurkeztu beharko du, lanaren kalitatea eta eraginkortasuna ez murrizteko behar besteko jarraikortasunez eta kontratuari osoki emandako bitartekoak zehaztuz.

Aholkulariak lan talde bat izendatuko du lanak egiteko, eta talde horrek II. eranskinean adierazitako gaitasun teknikoa eta esperientzia izan beharko ditu. Goi mailako ingeniaria edo telekomunikazioetako egongo da talde horren buru. Teknikari horrek aholkulariaren eskuorde gisa jardungo du, eta egin beharreko lanak koordinatzeaz eta lan horien zuzendaritza teknikoaz arduratuko da.

##### **4.1 Langileak**

Lan taldea bost pertsonakoa izango da gutxienez, eta langile horiek preskripzio teknikoan agiri honen II. eranskinean adierazitako ezaugarriak, eginkizunak, dedikazioa eta lanaldia izango dituzte.

##### **4.2. Baliabide materialak**

Lana gauzatu ahal izateko behar diren informatika ekipoei (software eta hardware) eta erreprodukzio ekipoei dagokienez, talde horrek testuen tratamendurako programak eta kalkulu-orria izango ditu eskura; eta horrez gain, datuak transmititzeko ekipopak, inprimagailua eta fotokopiagailua koloretan, eta ohiko gainerako bitartekoak izango ditu.

Kontratuaren xede diren tunelak Gipuzkoa osoan zehar banatuta daude; beraz, lan taldeko langile guztiek ibilgailua izango dute joan-etorrietarako.

Aholkulariak lan bulego bat izan beharko du, non, bere kokapenari esker, arduradunak kontratuaren xede den edozein tuneletan bertaratu ahal izango diren, egitatea ezagutzen den unetik gehienez ordubeteko epean.

#### **5.- LAN ARRISKUEN PREBENTZIO ALORREAN INDARREAN DAGOEN LEGERIA BETETZEA**

kontuan hartuta 54/2003 Legeak, abenduaren 12koak, laneko arriskuen prebentziorako arau esparrua aldatzekoak, ezarritako aldaketa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 24. artikulua xedatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak nahitaez hartu beharko dituela neurriak jarduerak beren lantokietan garatzen dituzten enpresaburuek informazio eta jarraibide egokiak jaso ditzaten, bai lantokietan dauden arriskuei dagokienez eta hartu beharreko babes eta prebentzioko neurriei dagokienez, eta baita ere aplikatu beharreko larrialdietako neurriei dagokienez, beraien langileei jakinarazte aldera. Beraz, kontuan hartuta errepideen foru sarea dela kontratuaren objektuaren xede eta lanak egiteko orduan errepidea irekita egongo dela trafikora, ondorengo agiria idatzi da eginkizun hori betetzerakoan dauden arriskuen berri adjudikaziodunari emateko: III. eranskina.- «Lanari lotutako arriskuak, errepidea irekita dagoenean».



PLT-C-2019-0009

## **6.- LANAK GAUZATZEKO EPEA**

Lanak guztiz gauzatzeko aurreikusi den epea BI (2) URTEKOA da, eta kontratua sinatzen den une berean ekingo zaie. Kontratu beste hiru urtez (3) luzatu ahal izango da.

## **7.- KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratuaren prezioa adjudikaziodunak eskainitakoa izango da, eta ez da berrehun eta hirurogeita hamar mila berrehun eta berrogeita hamaika euro eta hogeita lau zentimo (270.251,24 €) baino gehiagokoa izango, BEZa barne (% 21).

Guztirako gehienezko prezioa IV. eranskinean adierazitako prezio unitarioak eta aurreikusitako neurketak kontuan hartuta ezarri da.

Prezio horretan sartuak daude kontratua behar bezala gauzatzeko adjudikaziodunak ordaindu beharko dituen gastu guztiak.

Halaber, obra ezberdinen eremuaren barnetik, edo gure bulegoetara, edo Autonomia Erkidegoaren barneko edozein lanlekura, bere langile edo ekipamenduen desplazamenduen ondorioz sortzen diren orotariko gastuak (bidaiak, dietak, etab.) sartuzat emango dira.

## **8.- KONTRATUAREN ALDAKETAK MUGAK**

Kontratua aldatu ahal izango da, baldin eta berorren iraupenean zehar, Europaz gaindiko errepide sareko tunel berriak egin edo martxan jarriko balira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barruan, edo Eusko Jaurlaritzako 277/2010 Dekretua aplikagarri zaien tunelak izango balira.

Halaber, aldatu ahal izango da, baldin eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barruan, tunelen segurtasun baldintzak aldatzen badira, bai egitura ezaugarriak bai kontrol sistemak aldatu direlako.

Hala gertatuz gero, hau da, tunel berriak erantsiz gero, horiek ere kontratuaren barruan sartu beharko dira eta, kontratuan egingo den aldaketa bakarra, beraz, neurketa gehitzeak IV. eranskinean zehaztutako prezio unitarioetan eragingo duena gehitzea izango da. Baina aldaketa hori, asko jota ere, jatorrizko kontratuaren % 20 izango da (V. klausula. 35.-).

Halaber, 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 309. artikuluan aipatzen duenaren arabera, kontratuak adjudikazio aurrekontuaren % 10 arteko gehikuntza jaso ahal izango du likidazioan, kontratuaren neurketan izandako aldaketa baten ondorioz.



PLT-C-2019-0009

## 9.- LANEN BALORAZIOA ETA ORDAINKETA

Adjudikaziodunak gauzatutako lanak hilero ziurtagirien bitartez baloratu eta ordainduko dira, adjudikaziodunak eskainitako banakako prezioen arabera. Ziurtagiriak kontratu honetako ingeniari-arduradunak egingo ditu, ziurtagiriari dagokion hilaren barruan egindako lanak kontuan izanik.

Donostia, 2019ko urria

ZERBITZUBURUA  
Artapeneko eta Bide Kudeaketa

Sin: Iñigo Zufiria



PLT-C-2019-0009

## I. ERANSKINA: KONTRATUAREN XEDE DIREN TUNELAK

### 2019ko urria

KODEA	HASIERAKO KP	BUKAERAKO KP	TUNELETAKO TALDEAREN IZENA	HODIAREN LUZERA	HODI KOPURUA	ERREIAK/HODIA	BI NORABIDEKOA
A-15	147,9	149,736	BELABIETA	1836	2	2	EZ
N-I	400	400,5	ETZEGARATE	500	1	2	EZ
N-121 A	70,18	71,22	LAMIARRI- INTXAURRETA	720	1	2	BAI
GI-41	2,14	2,7	ZORROAGA	560	1	4	BAI
GI-2632	19,75	20,61	OLANDIXO	860	1	2	BAI
A-15	143,4	143,872	GOROSMENDI	472	2	2	EZ
A-15	151,6	152,15	OINDOLAR	550	2	2	EZ
A-15	144,8	145,585	SAN LORENTZO- LARRE	785	2	2	EZ



PLT-C-2019-0009

## II. ERANSKINA: LANGILE KOPURUA

Aholkularitza-taldea osatuko duten langileen gutxieneko kopurua, titulua eta espezializazioa, kargua, esperientzia eta kontratuan izango duten arduraldia barne:

Zk.	LANBIDEA ETA ESPERIENTZIA	KONTRATUAN IZANGO DUEN KARGUA	ESPERIENTZIA (URTEAK)	DEDIKAZIOA (%)
1	Ingeniari industrial edo telekomunikazioetako ingeniaria, baliokide dena Goi mailako Hezkuntzako Europako Esparruan, laguntza teknikoaren zuzendari lanetan esperientzia duena.	Kontratista aholkulariaren ordezkaria	10	10
1	Ingeniari industrial edo telekomunikazioetako ingeniaria, baliokide dena Goi mailako Hezkuntzako Europako Esparruan, tuneletako segurtasun arduradun lanetan esperientzia duena.	Segurtasun arduraduna (1)	8	40
1	Bide, Ubide eta Portuetako goi mailako ingeniaria edo unibertsitate masterra duena Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzan, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan baliokide dena, obra zibil eta geoteknikian espezializatutako aholkulari lanetan esperientzia duena.	Obra zibil eta geoteknikian espezializatutako aholkularia	8	10
1	Ingeniari industrial edo telekomunikazioetako ingeniaria, baliokide dena Goi mailako Hezkuntzako Europako Esparruan, tunelen segurtasuneko instalazioetan espezializatutako aholkulari lanetan esperientzia duena.	Tunelen segurtasuneko espezializatutako aholkularia	8	10
1	Ingeniari industrial edo telekomunikazioetako ingeniaria, baliokide dena Goi mailako Hezkuntzako Europako Esparruan, ITS sistemetan espezializatutako aholkulari lanetan esperientzia duena.	ITS sistemetan (Intelligent Transport System) espezializatutako aholkularia	6	10

- (1) Lanpostu horrek euskarako 3. HE, edo C1 (Europako Erreferentzia Esparrua) duela egiaztatu beharko du.
- (2) Goi mailako ingeniaria edo Ingeniaritzan unibertsitate masterra duena, baliokidea dena Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan, betiere esperientzia espezifikoa egiaztatzen bada.



PLT-C-2019-0009

### III. ERANSKINA: LANARI LOTUTAKO ARRISKUAK, ERREPIDEA IREKITA DAGOENEAN

Kontratuaren garapenari dagokionez, eta lanak egiteko beharrezkoa denez trafikoa irekia duen errepidean egotea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/04 Errege Dekretuan "enpresa-jardunen koordinazioari" buruz ezarritakoaren arabera, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK, lanak egiten diren errepideen jabe den aldetik, lanlekuak berezkoak dituen arriskuen berri eman behar die bertan jarduten duten kontratista, azpikontratista eta langile autonomoi, haiek garatu beharrek jardueretan eragina izan badezakete. Horrez gain, arrisku horiek prebenitzeko eta aplikatu beharrek larrialdietako neurrien berri eman beharko die (7. artikulua).

Hori horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazten du zerbitzuan diren errepideen inguruan egindako lanetan, ibilgailuek HARRAPATZEKO ARRISKU argia dagoela kontratatutako lan gehienak egiten diren bitartean, inguruan ibilgailuen zirkulazioa dagoelako.

Hori sorrarazten duten arrazoiak ezabatu, murriztu edo, hala badagokio, kontrolatzeko, prebentziozko neurri hauek aplikatuko dira:

- Zorroztasun osoz beteko da Bide Segurtasunari buruzko Legean, Zirkulazio Araudi Orokorrean, Errepideen Foru Arauan, Lanen seinaleztapenari buruzko 8.3-IC Errepideen Arauan eta xedapen osagarrietan ezarritakoa, baita Herri Lan eta Hirigintza Ministerioaren Zirkulazio Seinaleen Katalogoan xedatutakoa ere.
- Ibilgailuek zuriz, horiz, laranja, edo ikusgaitasun handiko kolorez pintatuta egon beharko dute, ahal bada.
- Bazterbidean edota zirkulazio erreietan mantendu behar diren ibilgailuak ezinbesteko argi seinaleztapenez hornitu beharko dira, Obren Seinaleztapen Mugikorraren Eskuliburuarekin bat etorritik, galtzadaren egiazko okupazioa kontuan hartuta.
- Seinale eta baliza guztiak ikusteko moduan jarriko dira, eta «Obren seinaleztapena» 8.3-IC Errepide Arauan adierazitako hurrenkeran eta distantziara kokatuta.
- Gaueko orduetan zehar seinaleak mantendu edo lanik eginez gero, beharrezko argi seinaleak instalatuko dira, betiere 8.3-IC Arauak adierazitako ezaugarriekin bat etorritik.
- Behin seinaleztapena ezarri ondoren, lanetako seinaleekin koherenteak ez diren seinaleak estali egingo dira.
- Ez dira lanak hasiko, aldez aurretik, dagokion seinaleztapena eta, hala badagokio, obren balizak ipini ez badira.
- Obretan parte hartzen duten langile guztiek erraz ikusteko moduko arropa eramango dute (UNE EN-471, 3. klasea), elementu islatzailez hornituta.
- Langileak zirkulaziorako debekatuta dauden eta balizak egoki ipinita dituzten eremuen barruan egongo dira une oro.



PLT-C-2019-0009

- Lanetan parte hartzen duten ibilgailuetako batek emango du galtzadan dauden langileen babesa, langileen aurretik jarrita egongo baita, martxaren noranzkoan.
- Ikusgarritasun urriko egoeretan (behe lainoa, elurra, etab.), lanak eten egin beharko dira.

Bestalde, lanen enpresa adjudikaziodunak, segurtasun eta osasun arloan indarrean dagoen legeria betez, derrigorrez hau bete beharko du:

- Kontuan hartu beharko du, arriskuen ebaluazio eta 31/1995 Legearen 16. artikuluan aipatzen den prebentziozko jardueraren plangintza egitean, Gipuzkoako Foru Aldundiak lantokiari berez dagozkion arriskuei buruz emandako informazioa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioa eta jarraibideak bere langileei jakinarazi beharko dizkie Laneko Arriskuak Prebenitzeko 31/1995 Legeko 18.1. artikuluan aurreikusitako moduan; jakinarazpena behar bezala jasota geratu beharko da.
- Beharrezko bitartekoak ezarri beharko ditu enpresa azpikontratista ezberdinen arteko koordinaziorako.
- Azpikontrata ditzakeen langile autonomoei jarraibide egokiak jakinarazi eta eskaini beharko dizkie, hain zuzen ere segurtasun eta osasunaren alorrean hartu beharreko neurri guztiei buruz.
- Kontratutako beste enpresek eta langile autonomoek ezarritako prebentziozko neurriak behar bezala betetzen dituztela zaindu beharko du.





PLT-C-2019-0009

#### IV. ERANSKINA: NEURKETAK, UNITATEKO PREZIOAK ETA AURREKONTUA

##### NEURKETAK

KODEA	TUNELETAKO TALDEAREN IZENA	HODIAREN LUZERA (METRO)	HODI KOPURUA	GUZTIRA (METRO LINEALA / HODIA)
A-15	BELABIETA	1836	2	<b>3672</b>
N-I	ETZEGARATE	500	1	<b>500</b>
N-121 A	LAMIARRI- INTXAURRETA	720	1	<b>720</b>
GI-41	ZORROAGA	560	1	<b>560</b>
GI-2632	OLANDIXO	860	1	<b>860</b>
A-15	GOROSMENDI	472	2	<b>944</b>
A-15	OINDOLAR	550	2	<b>1100</b>
A-15	SAN LORENTZO- LARRE	785	2	<b>1570</b>
				<b>9926</b>

##### UNITATEKO PREZIOAK (BEZik gabe)

ZK.	KONTZEPTUA	BANAKAKO PREZIOA (€/hil)
1	Segurtasun arduradunaren lanen hilekoa, tuneleko hodiaren metro lineal bakoitzeko	0,94 €



PLT-C-2019-0009

### AURREKONTUA

KODEA	TUNELETAKO TALDEAREN IZENA	HODIAREN LUZERA (METRO))	HODI KOPURUA	GUZTIRA (METRO LINEALA / HODIA)	HILABETEAK	PREZIOA	GUZTIRA
A-15	BELABIETA	1836	2	3672	24	0,94	82840,32
N-I	ETZEGARATE	500	1	500	24	0,94	11280,00
N-121 A	LAMIARRI- INTXAURRETA	720	1	720	24	0,94	16243,20
GI-41	ZORROAGA	560	1	560	24	0,94	12633,60
GI-2632	OLANDIXO	860	1	860	24	0,94	19401,60
A-15	GOROSMENDI	472	2	944	24	0,94	21296,64
A-15	OINDOLAR	550	2	1100	24	0,94	24816,00
A-15	SAN LORENTZO-LARRE	785	2	1570	24	0,94	35419,20

	<b>BATURA</b>	<b>223930,56</b>
	BEZa	
<b>223.348,13</b>	(21%)	47025,4176
	<b>GUZTIRA</b>	<b>270955,98</b>



PLT-C-2019-0009

## V. ERANSKINA: JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA

Eskatzen den kaudimen eta dedikazioarekin 24 hilabeteko kontratuaren guztizko zenbatekoaren justifikazio ekonomikoa taula honen bidez justifikatzen da. Bertan ikus daiteke lizitazio neurritik behera dagoela.

Zk.	LANBIDEA ETA ESPERIENTZIA	DEDIKAZIOA (%)	HILABETEAK	ASTEAK	BANAKAKO PREZIOA (EUROAK /ASTEAK)	GUZTIRA
1	Ingeniari industrial edo telekomunikazioetako ingeniaria, baliokide dena Goi mailako Hezkuntzako Europako Esparruan, laguntza teknikoaren zuzendari lanetan esperientzia duena.	10	24	105	2.250,00 €	23.625,00 €
1	Ingeniari industrial edo telekomunikazioetako ingeniaria, baliokide dena Goi mailako Hezkuntzako Europako Esparruan, tuneletako segurtasun arduradun lanetan esperientzia duena.	40	24	105	2.000,00 €	84.000,00 €
1	Bide, Ubide eta Portuetako goi mailako ingeniaria edo unibertsitate masterra duena Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzan, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan baliokidea dena, obra zibil eta geoteknikan espezializatutako aholkulari lanetan esperientzia duena.	10	24	105	1.875,00 €	19.687,50 €
1	Ingeniari industrial edo telekomunikazioetako ingeniaria, baliokide dena Goi mailako Hezkuntzako Europako Esparruan, tunelen segurtasuneko instalazioetan espezializatutako aholkulari lanetan esperientzia duena.	10	24	105	1.875,00 €	19.687,50 €
1	Ingeniari industrial edo telekomunikazioetako ingeniaria, baliokide dena Goi mailako Hezkuntzako Europako Esparruan, ITS sistemetan espezializatutako aholkulari lanetan esperientzia duena.	10	24	105	1.875,00 €	19.687,50 €
	Bitarteko osagarriak	100		105	200,00 €	21.000,00 €

187.687,50 €

GG+BI (13+6) (%) 35.660,63 €

**GUZTIRA 223.348,13 €**

BEZa % 21 46.903,11 €

**GUZTIRA BEZa barne 270.251,24 €**

